



**ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ZERBITZUAK
PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO**

**MENDIETA ONTZIOLAKO ETXEAREN BIRGAITZERAKO EGIKARITZE-
PROIEKTUA**

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: Lekeitioko Mendieta ontziolako etxearen birgaitzerako Egikaritze-Proiektua, kontratu izaera izango duen espedientean dagoen dokumentazio teknikoa jarraituz.

Mendieta ontziola, bere alboko etxea eta ingurua 2010eko otsailaren 9ko Aginduaren bidez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartu ziren, monumentu-multzo izendapenarekin. Agindu horretan zehaztu zen baimendu daitezkeen esku-hartzeen erregimena.

Kontratuaren xedeari dagokion CPV nomenklaturaren kodea:

71240000-2 Arkitektura, Ingeniaritza eta Plangintza Zerbitzuak.

2. BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren zerbitzuak burutzeko epea SEI (6) ASTETAKOA izango da.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Kontratuaren aurrekontua HOGEITA LAU MILA EHUN ETA ZORTZI EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO izango da (24.108,27 €), gehi BEZri dagozkion BOST MILA ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (5.062,74 €). Aurrekontu hori hobetu ahal izango dute enpresa lizitatzailleek.

SPKLren 101.1 artikulua aurreikusitako ondorioetarako, kontratuari emandako balioa 24.108,27 euro da (BEZ gabe).

4. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Bestaldetik, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. ORDAINTZEKO ERA

Egindako zerbitzuen ordainketa era honetan egingo da: egikaritze-proiektua entregatu eta onartu ondoren, dagokion faktura aurkeztu ondoren.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.



7. BERMEAK

Kontratuaren esleipenduna, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamar egunekoa izango da, esleipena kontratatzaile profilean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (aurerantzean SPKL) 108. artikuluan azaltzen diren baldintza edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabili daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuazaleari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, esleipenak ez du eraginik izango.

Berme-epaia amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako SPKLren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriko da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua sinatzearekin batera hasiko da kontratua betetzea.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratatari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. KONTRATISTAREN LAN ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratatari lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiénaren arloan indarrean dauden legeko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. KONTRATUAREN EGIKARITZARAKO GIZARTE, ETIKA, INGURUMEN EDO BESTELAKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202 artikuluan oinarrituta, eta lan merkatuan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak kentzeko, lanean emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzei dagokionez, ondoko egikaritza baldintza bereziak ezartzen dira:

Esleipendunak, bere plantillan emakumeen ordezkari bat desorekatu bat badauka, kontratuaren egikaritzan zehar gutxienez emakume baten kontratazio berri bat egin beharko du, edo emakume baten aldi baterako kontratazio bat



kontratu iraunkor bilakatu. Desorekatutako plantillatzat joko da bertan emakumeen ordezkariak plantilla orokorraren ehuneko 40 baino gutxiago bada.

11. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratastaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

12. KONTRATUAREN ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLren 205 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Berebiziko aldatze kasu bezala hartzen da Udalaren ahalmen eta aukera Bigarren Fasearen hasiera bera ukitzen duten hirigintzako dokumentuen tramitazioa doitzeko. Beraien berri emango zaio kontratastari udal arduradunen eta zuzendaritza fakultatiboaren bitartez

13. ZERBITZUAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Zerbitzua amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, zerbitzuak esleitzailaren esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, HAMABI (12) HILABETEKO epea egongo da harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Beti ere, legearen mugen barruan, kontratastak sortarazi ahal ditzaken erantzukizunen kalterik gabe.

14. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Zigorak ezarriko zaizkion kontratastari ondoren aurreikusten diren kasuetariko baten erortzen bada:

a) Kontrata burutzeko epeak ez betetzea. Kontratastak, bere erruagatik, kontrata burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontrata bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontrata eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

b) Prestazioen burutzapen partziala edo akatsekin egitea. Kontratastak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontrata bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea, beti ere diru-



zigor honen multzoak ez badu kontratuaren kopuru osoaren 100eko 50 gainditzen.

c) Kaudimen konpromisoak ez betetzea. Kontratastak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, 19. klausulan adierazi bezala, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

15. KONTRATUAREN SUNTSIARAZPENA

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211 eta-313. artikuluetan azaltzen direnak izango dira. Kontratua suntsiarazi ahal izateko arrazoi berezi bezala ezartzen da Legearen 202 artikuluan oinarritutako baldintzak ez betetzea.

16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

17. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

BALIO JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK:	%-ptak
Jarduketa programa eta lan metodologia Atal honetan baloratuko da jarduketa osoaren eta bere gorabeheren eta konplexutasunaren ezagupen maila, eta baita proiektuaren guztien azterketa xehatua eta bera osatzen duten dokumentu ezberdinen arteko koherentziaren zehaztasun. Azterketa hauek aurkeztuko dira: <ul style="list-style-type: none">• Eraikuntza planteaketa (baloratuko da era berezian ondare elementuaren ikuspuntua): 35 pt.• Aurrekontua, atalen zehaztapena: 2,5 pt.• Kalitate-kontrol programa: 2,5 pt.• Hondakinen kudeaketa azterlana: 2,5 pt.• Segurtasun eta osasungarritasun azterlana: 2,5 pt.	45
AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK	%-ptak
Proposamen ekonomikoa Puntuaziorako honako pautak hartuko dira kontuan: Lizitazio batak, 0 eta %8 bitartean, 5 puntu merkatzen den ehuneko bakoitzeko.	55



<p>%8 baino baja haundiagoko eskaintzarik balego, gehienezko 55 puntuak lortuko lituzke ehuneko baja haundiena aurkeztu duenak; % 8 baino baja haundiagoa aurkezten dauen gainerakoak puntuazio bien interpolazio linealaren bitartez lortuko dute.</p>	
---	--

Kontratatze-Mahaia ondoko kideek osatuko dute:

- Presidentea: Lekeitioko Udaleko alkatea.
- Bokalak:
 - o Hirigintza, Obrak eta Iraunkortasuna Batzordeko kidea den zinegotzia.
 - o Kontratuaren xedearekin erlazionatuta dagoen saileko Udal teknikaria.
 - o Lekeitioko Udaleko kontu-hartzailea.
 - o Lekeitioko Udaleko idazkaria.
- Mahaiko idazkaria: Kontratazioko administraria.

18. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 73. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 19. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Kontratua gauzatzera atxikitako gutxieneko teknikari/talde bat eskatzen da, gutxienez honako baldintzak beteko dituenak:

- Teknikari bat, goi-mailako arkitekto edo goi-mailako ingeniari titulua duena; horrez gain, ondokoa egiaztatu beharko du: hamar urteko gutxieneko esperientzia eta, azken hamar urte horietan, gutxienez, 1.000.000 euroko egikarritza-materiala baino gehiagoko eta ondare kultural izendatutako eraikinen birgaitze proiektu biren (2) egile izatea.
- Teknikari bat, goi-mailako arkitekto edo goi-mailako ingeniari titulua duena; horrez gain, ondokoa egiaztatu beharko du: BIM metodologia erabilita idatzitako ondare kultural izendatutako eraikinen birgaitze-proiektu biren (2) egilea izatea (aurreko puntuko teknikari bera izan daiteke).

Eskatzen da ere taldea gai izatea euskaraz komunikatzeko, bai ahoz, bai idatziz, administrazioarekin eta eraikitze-prozedurako gainerako interesatu guztiekin.



Taldekide batek, gainera egiaztatu beharko du, dagokion ziurtagiri bitartez, 3.HE edo baliokide den hizkuntza gaitasuna duela.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Lizitazio hau kontratatzailearen profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan dagoena.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bidez, 20 egun naturaleko epearen baitan, iragarkia agertu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita eta adierazitako epealdiaren azken eguneko 14:00etara arte.

SPKLaren kontratatzailearen profilerak helbide honen bidez sartu ahal izango da: www.lekeitio.com. Leku horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatuak pleguei edo agiri osagarriei buruz bestelako informaziorik eskatzekotan, eskaintzak jasotzeko ezarri den azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere eskaintzak jasotzeko ezarri den epe hori amaitu baino zortzi egun lehenago gutxienez egin bada eskabidea.

Bat etorri SPKLaren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoarekin, pleguei buruzko informazio gehigarria edo dokumentazio osagarria ezin izan denean adierazitako epeen barruan aurkeztu, edo eskaintzak lekuan bertan egindako bisita baten ostean edo pleguari erantsitako dokumentazioa in situ kontsultatu ostean soilik egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea komeni bezain beste luzatuko da. Hala, ukitutako hautagaiak eskaintzak egin ahal izateko beharrezko informazio guztiaren berri izango dute.

Lizitazio prozedura honetan ez dira onartuko deskribatutako bide elektronikoen eskaintzak.

Eskaintza bateko dokumentuetako edozein ezin bada behar bezala ikusi, baimenduko da lizitatuak formatu digitalean aurkeztea akasdu fitxategian txertatutako dokumentua, betiere 24 ordu igaro baino lehen. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezingo du inolako aldaketarik jasan eskaintzan sartutako jatorrizkoari dagokionez. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatuaren eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak Administrazio Baldintza Berezien Plegu honetan aurreikusitakora egokitu behar dira, eta horiek aurkezteak dakar lizitatuak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horiek, salbuespen edo erreserbarik gabe, eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena ematea Euskadiko Lizitatuak eta Enpresa Saillatuen Erregistroan datuak kontsultatzeko.

Lizitatuak bakoitzak ezin izango du eskaintza bat baino gehiago egin, aldagaiak onartzea albo batera utzi gabe. Halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa elkartean antolatuta proposamenik sinatu bakarka sinatu badu, ez eta behin-behineko elkarte batean baino gehiagotan ageri ere. Arau horiek urratuz gero, lizitatuak sinatutako proposamen bat ere ez da onartuko.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak eta adjudikazioa iragartzearen inguruan eta hautagai eta lizitatuak eman beharrezko informazioari



buruz SPKLaren xedapenek diotena baztertu gabe, hautagai eta lizitatzaille horiek eskaintzarekin igorritako informazioa isilpekoa dela adierazi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean. Udalak ezin izango du informazio hau zabaldu dagokion lizitatzaillearen baimenik gabe.

Lizitatzailleek hiru gutun-azal elektronikoa aurkeztu beharko dituzte. Horiek itxita egon beharko dira, eta lizitatzailleak edo ordezkatzan duen pertsonak sinatu beharko ditu, bertan jasotako dokumentazioaren nortasuna eta osotasuna bermatzen duen sinadura elektronikoa aitortuaren bidez. Barrualdean, dituen dokumentuen zenbaki-zerrenda jaso beharko du

“A” gutun-azal elektronikoa azpiztitulua “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” izango da, eta honako agiriak jasoko dira bertan:

1.- Gaitutako helbide elektronikoa.

Gaitutako helbide elektronikoa bat aukeratzea, bat etorri SPKLaren 15. xedapen gehigarrian xedatutakoarekin. Helbide horretan egingo dira kontratazio espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

2.- Lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzailleak adieraziko du Administrazioarekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, bai eta baldintza-agiri honetan kontratua eskuratzeko ezarritako baldintzak ere. Adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formulariora egokituko da.

Hala ere, kontratazio-organoak edo -mahaiak, prozedura behar bezala garatzen dela bermatze aldera, kontratuaren adjudikaziodun izateko agiri honetan ezartzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzailleei, betiere, adjudikazio egin aurretik.

Enpresen aldi baterako elkarte batean (ABEE) lehiatzen diren operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, eta horietako bakoitzak, izenak, inguruabarrak eta ABEEan izango duten partaidetza zehaztu beharko dituzte.

SPKLaren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, lizitatzaillea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Loteetan banatzen bada, kaudimen-baldintza desberdinekin, lote bakoitzeko edo kaudimen-eskakizun berak aplikagarri daukan lote-talde bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da.

Proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da Legean eta agiri honetan eskaturiko nahitaetzko nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko une erabakigarria.

Adierazitako bitartekoei dagokienez, kontratu honetarako enpresek izan beharreko gutxieneko baldintzak hauek izango dira:



LEKEITIOKO UDALA Idazkaritza

Kaudimen ekonomikoa: gutxieneko 600.000 € kopuruko erantzukizun zibilieko poliza eta gutxienez urteko 50.000 €-ko negozio bolumena azken hiru urteen barruan.

Gaitasun teknikoa: 18. klausulan adierazitakoa.

Gaitasun profesionala: 18. klausulan adierazitakoa.

“B” kartazal elektronikoaren azpitulua hau izango da: "BALIO JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN BALIOESPEN IRIZPIDEAK". Bertan, agiri honen 17. klausulan adierazitako balio-judizioen arabera balioespen-irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak jasoko dira.

“C” kartazal elektronikoaren azpitulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK”, eta ondoko agiriak ekarriko ditu:

a) Ondoko ereduaren arabera diru-proposamena:

..... Jaun/Andrea
Helbidea Posta kodea
....., NAN zenbakia, Telefonoa
Helbide elektronikoa....., zuzenbideko eta jarduteko gaitasun
osoarekin. Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak
..... Helbidea
..... Posta kodea
....., Telefonoa NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisiko
edo juridikoa denaren arabera),
kontratatzeko asmoz k
.....
.....
.....
dei egindako prozedura ireki bidezko kontratazioen berri izanik

ADIERAZTEN DUT:

- 1º) Hitz ematen dudala kontratua honako prezio honetan burutuko dudala:
..... €, gehi €, azken kopuru hori BEZaren
%ari dagokiona. Epea hau izango da: Prezioaren
barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko
edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.
- 2º) Kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen
agiria eta gainontzeko agiriak ere ezagutzen ditudala. Horiek horrela,
neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.
- 3º) Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean
dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela.
....., 20....(e)ko aren(a)

Izenpea



20. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren honako jarduketak gauzatuko dira:

1. «A» GUTUN-AZALAREN IREKIERA

Mahaiak «A» gutun-azala elektronikoki irekiko du eta gutun-azal horretan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du.

SPKLaren 141.2 artikulua aplikatuz, Mahaiak aurkeztutako dokumentuetan zuzen daitezkeen akatsak ikusten baditu, eragindako lizitatzaillei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzen ditzaten.

Gainera, lizitatzaillei jakinarazten zaizkien zuzenketa-eskaerak Udalaren kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

2. «B» GUTUN-AZALAREN IREKIERA

«B» gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-irizpenen mendean dauden irizpideak ulertzekoa, kontratatzailean profilean argitaratzen den toki, egin eta orduan irekiko da, gutxienez, 48 ordu lehenago. Xede horietarako, dokumentazio horretako akatsak edo hutsak zuzendu behar badira, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du, 817/2009 Errege Dekretuaren, maiatzaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki onartzen duenaren, 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu jasotako eskaintzarik onenari buruz, eta kontratazio-organoari bere adjudikazio-proposamena helaraziko dio.

3. «C» GUTUN-AZALAREN IREKIERA

"B" gutun-azala ireki eta bertako dokumentazioa baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak "C" gutun-azala irekiko du, Udalaren kontratugilearen profilean adieraziko den egunean eta orduan. Ondorio horietarako, dokumentazio horretako akatsak edo omisioak zuzendu behar izanez gero, Mahaiak, gehienez ere, sei egun balioduneko epea emango du zuzenketa egiteko, aipatutako 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua analogiaz aplikatuz.

Egintza horretan, eskaintza bakoitzean balio-irizpenen mendeko irizpideei adjudikatutako balorazioa emango da jakitera.

4. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu (puntu gehien dituenetik puntu gutxien dituenera) eta kontratua adjudikatzeko proposamena hori burutu behar duen kontratazio organoari aurkeztuko dio.



Ez ohiko moduan baxutzat jo daitezkeen proposamenak identifikatzen direnean, eskaintzen izaera neurrigabearen edo ohiz kanpokoaren adierazpenak aurretik eskaintza horiek aurkeztu dituen/dituzten lizitatzaillearen edo, hala badagokio, lizitatzaillearen entzunaldia eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa behar ditu, SPKLaren 149. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Kasu horretan, kontratazio organoak, lizitatzailleak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusirik, xedatuko du adjudikazioa ekonomikoki proposamen merkeenaren aldekoa izango dela, Administrazioak ase ahal izango duela balioztatzen dena.

Aitzitik, kontratazio organoak uste badu eskaintza ezin dela bete ohiz kanpoko eta neurrigabeko balioak sartzearen ondorioz, sailkapenetik baztertuko du eta adjudikazioa ekonomikoki proposamen merkeenaren aldekoa izan dadila xedatuko du, sailkatutako ordenarekin bat etorritz.

Aipatutako hori guztia espedientean jasoko da, nahitaez zabaldu beharko diren kasuan kasuko aktetan.

21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

1.- Kontrataze organoak proposamen onuragarriena aurkezten duen lizitatzaileri kontratua behin-behinean adjudikatzea erabakiko du, aurreko klausulan ezarritako irizpideak aplikatuz.

2.- Adjudikazioa hogeit eguneko epean egingo da, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita.

3.- Hamar egun balioduneko epean, behin-behineko adjudikazioa argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, behin-behineko adjudikaziodunak jarraian adierazten diren jarduketak egin beharko ditu edo agiriak aurkeztu:

a) Parte hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari izan bada, notario-ahalordea, udal honek askietsia.

b) Lizitatzailera pertsona juridikoa bada, eratu edo aldatzeko eskritura, bidezkoa bada, Merkataritza Erregistroan behar den moduan inskribatutakoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu ahal zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egotea eskatu ahal denean. Hori beharrezkoa ez bada, eraketa-eskritura edo -agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

Espainiakoak ez diren baina Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresaburuaren kasuan, egiaztatu beharko dute dagokion erregistroan izena emanda dutela, beren estatuaren legeriarekin bat eginez. Bestela, zinpeko aitorten bat edo ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango dute, aplikagarriak diren erkidegoko xedapenei jarraikiz.

Gainontzeko enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Espainiak dagokion estatuan (enpresaren helbidea zein lurralde eremutan dagoen



aintzat hartuta) daukan Diplomazia Misio Iraunkorraren edo kontsuletxearen txostenaren bitartez.

c) Kontratuaren JEZaren epigrafe egokian alta emanda egotearen gaineko egiaztagiria, eta alta aurkeztuta uneko ekitaldia bada, edo JEZaren azken ordainagiria gainerako kasu guztietan. Kasu bietan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpena behar da.

d) Lizitatzailaren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren ziurtagiriak.

Horretaz gain, kontratua egingo duten langile arduradunen izenak eta prestakuntza profesionala zehaztuko dituzte. Horri dagokionez, adierazten da adjudikaziodunak ezingo dituela pertsona horiek ordezkatu administrazio honen alde aurreko baimenik gabe. Inguruabar hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzailleek klausula honetan bertan aipatutako erregistro ofizialen baten ziurtagiria edo erkidegoko ziurtagiria aurkeztu.

e) Lizitazio baten hainbat enpresek Aldi Baterako Enpresa Elkartearen eratu parte hartzen badute, elkartea osatzen duen bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna daukala, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, proposamenean ABEEren kide bakoitzak egingo duen xedearen zatia azalduko da, guztien kaudimenari buruzko baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Enpresa atzerritarrek espainiar epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen direlako adierazpena egin behar dute, zuzenean edo zeharka kontratuak ekar litzakeen gorabehera guztietarako. Lizitatzailleak atzerritar jurisdikzio foruari (baleuka) uko egingo dio.

g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzea edo kontratazio organoari modu zuzenean lortzeko baimena ematea.

h) Behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

i) Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztea, gutxienez 600.000 eurokoa.

a) (NAN izan ezik), b) eta d) letretan aipatutako egoerak (kontratua gauzatze arduratuko diren langileen izenak eta prestakuntza profesionala zehaztea izan ezik) Euskadiko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko, Estatutako Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriaren bidez edo Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 96. eta 97. artikuluetan xedatutakoarekin bat sailkapenaren ziurtagiri komunitarioaren bitartez egiaztatu daitezke. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak modu elektronikoan igorri ahalko dira.

Eskaera aipatutako epean behar bezala beteko ez balitz, lizitatzailleak eskaintza kendu duela ulertuko da eta, kasu horretan, hurrengo lizitatzailari —eskaintzak sailkatu diren ordenari jarraikiz— agiri berberak eskatuko zaizkio.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ostean aurkeztutako dokumentazioak zuzen daitezkeen akatsak baditu, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko. Bada, hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzailari, eta Udalaren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.



Adierazitako jarduerak egin ondoren, behin-behineko adjudikazioa behin betiko bihurtuko da, aurrez aurreikusitako adjudikazioaren ondorengo bost egun balioduneko epean.

Adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko agiria sinatu beharko du, Udalak adierazitako egunean. Nahikoa izango da administrazio-dokumentuan formalizatzea. Adjudikaziodunak eskritura publikoan formalizatu nahi badu, gastuak bere kontukoak izango dira, eta udal honi lehenengo kopia, kopia baimendua eta eskrituraren kopia soil bat eman beharko dizkio, egiletsi eta 15 eguneko epean.

Kontratistari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, ezin izango balitz kontratua legezko egin, Udalak kontratua suntsiaraztea erabaki lezake. Erabaki hori hartu aurretik, ordea, entzunaldia emango zaio interesdunari, kalteen kalte ordainarekin.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoaren arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, indarrean dagoen Legearen erregelamenduzko garapenik ez dagoen bitartean; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 9/2017 Legearen aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

Plegu honetaz aparte, kontratu izaera izango dute ere ondorengo dokumentuek:

- Kontratazio honen Baldintza Teknikoen Plegua.
- Kontratatzeko organoak onartutako lanen egitaraua.
- Eskaintza ekonomikoa.
- Kontratua gauzatzen duen dokumentua.

23. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak izaera pertsonaleko datuen babeserako arloan indarrean dagoen legerian zehaztutako betebeharrak bete beharko ditu.

24. JURISDIKZIO ESKUDUNA



Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak administrazioarekiko auzien ordenera lotuko dira; hala ere, aldeek ahal izango dute adostu bere gai eztabaidagarriak arbitrajera lotzea, indarreko legediak ezarritakoa jarraituz.

25. AGERIKO HIZKUNTZA ERABILERA

Ageriko hizkuntza erabileran (iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan) gutxienez euskara erabiliko da.

Lekeition, 2020ko abenduaren 1.